

## Txirrindularitza

# Ullrichetik sasoi onean dela frogatu du etapa Gotxarrentzat izan arren

Bjarne Riisek erlojupeko eskasa egin zuen, eta Ullrichengandik 2.46ra iritsi zen

**S**uitzako Itzulian atzo korrituriko erlojupekoak argi eta garbi utzi zuen Jan Ullrich sasoi betean dagoela, eta Tourrari begira kontuan izan beharreko gizona dela. Etapa Gotxarrek irabazi zuen ehuneko batzuen aldeaz. Zullek eta Berzinek maila ona azaldu zuten, Bjarne Riisek ez bezala. Tourrerako faboritoak erlojupeko eskasa egin zuen, burua Frantziako Itzulian duela agerian utziz.

Gorka Zabaleta / Donostia

TELEKOM indartsu iritsiko da aurtun Tourrera. Riisen portaera alde batera utzita, beste taldeki-deak bikain aritu ziren atzo Suitzako Itzuliko erlojupekoan. Jan Ullrich gazteak aurreko eguneko erakustaldia baieztatu zuen atzo, Gotxarrek batera etapako denborarik onena eginez (39.30). Baina ezin da ahaztu Boltsek edo Heppnerrek egindako lana, biak ere aurreko postuetan.

Erlojupekoak 32 kilometro zituen, eta tartean mendate bat gaudituz behar zuten txirrindulariek. Suitzarrak bikain moldatu ziren euren lurraldean, eta, nahiz eta etapa ez irabazi, aurreko postuetan izan ziren. Alex Zullek laugarren postua eskuratu zuen. Baliteke Oncekoa oraindik ez egotea guztiz osaturik bere erorikotik. Baina ez zen Zulle izan suitzarraren onena atzo. Aurrea hartu zion Mapeiko Oskar Camenzindek, izugarriko erlojupekoa egin ondoren. Camenzindek, gainera, mendatea gaudituz ondoren (azken 9 kilometroetan) 16 segundo kendu zizkion irabazleari. Gotxarrek atzo erakutsi zuen Italiako Giroan lorturiko garaipena ez zela kasualitate hutsa izan, ez zela aurkari faltarengatik izan, atzo Olano eta Boardman baino ez baitziren falta. Erlojuaren aurkako benetako espezialista da ukrainar hau. Ezin da ahaztu



Euskadi taldeko Cesar Solaun erori egin zen Voltako atzoko etapan.

LLUIS GENE / Efe

David Etxeberriak egindako lan bikaina ere, 10. amaitu baitzuen (40.55), Jalabertengandik segundoko bakar batera.

Lidergoari dagokionez, Christian Agnoluttok ederki defenditu zuen maillota. Casinoko txirrindulari frantziarrak sailkapenean bigarren den Foisenganako abantaila handitu egin zuen, eta Ullrichekin 2.09 galdu zuen. Gaur etapa nagusia korrituko dute Spiez eta Bosco Gurinen artean (254 km), eta lehen mailako hiru mendate egongo dira..

Bestalde, Kataluniako Voltan Ustxakovek irabazi zuen hirugarren etapa, esprintean. Sailkapen nagusiak berdin jarraitzen du.

**Lurraldetako txapelketak jokatu ziren atzo** • Hegoaldeko lau lurraldeetan atzo jokatu ziren bertako txapelkunak Sub'23 eta Elite mailan. Araban, Agurainen

jokatu zen txapelketa eta Aitor Kintanak (Caja Rural) irabazi zuen; bera da Sub'23 mailako txapelkun berria. Elite mailakoa Josu Isasi (Banaka) da, helmugara hirugarren heldu zena. Erlojupeko txapelketa ez zen jokatu.

Bizkaian Olarra taldeak goitik behera menderatu zuen Leioan korritutako lasterketa: talde horretakoak izan ziren lau lehe-

nak. Helmugan lehena Oscar Movilla izan zen, eta bera da Elite mailako txapelketa. Sub'23koa, helmugan hirugarren izan zen Mikel Artetxe.

Gipuzkoako txapelketa Seguran jokatu zen. Lasterketa Kaiku etxeko Pello Arreitunaindiak irabazi zuen. Bera da Elite mailako txapelketa. Sub'23 mailakoa, berriz, Haimar Zubeldia. X

## sailkapenak

### Suitzako Itzulia

Etapa	Denbora
1. Sergei Gotxar (Aki)	39:30
2. Jan Ullrich (Telekom)	d.b.
3. Oskar Camenzind (Mapei)	19ra
4. Alex Zulle (Once)	30era
5. Eugeni Berzin	49ra

### Nagusia

1. Christophe Agnolutto (Casino)	14:44:26
2. Valentino Fois (Mapei)	4:01ra
3. Jan Ullrich (Telekom)	6:23ra
4. Oskar Camenzind (Mapei)	7:27ra
5. Roland Meier	7:31ra

### Kataluniako Volta

Etapa	Denbora
1. Sergei Ustxakov (Politi)	5:00:56
2. Peter Van Petegem (TVM)	d.b.
3. Angel Luis Casero (Banesto)	d.b.
4. Maurizio Molinari (Asics)	d.b.
5. Jose Luis Rubiera (Kelme)	d.b.

### Nagusia

1. Christopher Boardman (Gan)	11:08:02
2. Angel Luis Casero (Banesto)	12ra
3. Fernando Escartin (Kelme)	23ra
4. Armand de las Cuevas (Banesto)	33ra
5. Alberto Leanzbarrutia (Once)	33ra

## Eskubaloia

# Bidasoak 125 milioko aurrekontua izango du

Josemi Marcos zentralak bi denboraldietarako sinatu du Irungo taldearekin

Erredakzioa / Donostia

BIDASOAREN Batzar Orokorrean klubak dituen arazo guztiak jorratu ziren, baina ez zen inolako eztabaida bizirik sortu bazki.

Beñardo Garciak argitu nahi izan zuen lehen gaia hauteskundeena izan zen. Adierazi zuenez, ez du hauteskundeak aurreratzeko asmorik, ezta kargua uzteko ere. Klubaren egoera ekonomikoa bideratzea du lehen helburua, eta orduan bakarrik izango dira hauteskundeak. Datorren urterako iragarri ditu, bere ondorengoak presidente lanari euste-

ko denbora nahikoa izan dezan. Berak ez du bere burua berriro aurkeztuko, osasun arazoak direla eta. Datorren urterako Bidasoak 125 milioko aurrekontua izango du, eta hauetatik 20 baino ez dira babesleek jarritakoak.

Iñaki Ordoñezekin sorturiko ika-mikak ere azaldu behar izan zituen presidentek. Nafarrak Ivan Sopalovic eta Juantxo Villarrealekin hitz egin du azken egunotan, eta taldea utzi nahi duela adierazi die argi eta garbi. Zuzendaritzak, baina, ez du jarrera aldatzeko asmorik.

Taldeko jokalariei gehienei ezarritako isuna ez zen alde batera geratu. Zuzendaritzak lehen taldeko jokalariei isun ekonomikoko bat jarri die, soldataren % 5, aurtun Ligan egindako lan eskasagatik. Barreto, Gurutz, David, Arkaitz eta Barnecilla izan dira libratu diren bakarrak.

Josemi Marcos eibartarraren fitxaketa baieztatu nahi izan zuen Beñardok, batzarrari amaiera emateko. Josemi Oho-rezko B Mailako golegile onena izan da Arrate taldearekin, eta atzo bertan sinatu zuen bi urteko kontratua. X

## laburrean

### ARRAUNKETA

#### ■ Illunbek irabazi du Hernaniko Ikurrina

ATZO hasi zen Hernanin traineru denboraldia, arratsaldeko 5:30etan hain zuzen, eta sasoioko lehen estropada horretan Trintxerpeko Illunbe unzia izan zen garailea. Uru-mea ibaiko uretan bigarren Donibaneko Arraunlariak trainerua geratu zen. Hirugarren Orio izan zen. Beste hamabost unzi ere aritu ziren atzo Hernanin. X

### TXIRRINDULARITZA

#### ■ Javier Mauleonek ezingo du Tourra korritu

JABIER MAULEONEK erorikoa izan zuen asteazkenean Suitzako Itzulian eta eskuin besoko erradioa apurtu zuen. Eroriko horren ondoren, Mauleonek ezin izango du Tourra korritu. ONCE taldeak Tourrera eraman behar zituen txirrindularien artean postu finkoa zeukan. Datorren astean bizikletan entrenatu ahal izango du baina lau astez igeltsua eraman behar du. X

### SASKIBALOA

#### ■ Samaniego izango da Scarioloren laguntzailea Taugresen

JOSE ANTONIO SAMANIEGO gipuzkoarrak EBA Ligako bi talde zuzendu ditu azken bi denboralditan: 1995-96an Arrasateko Urbina-Maltzaga eta 1996-97an Andaluziako El Ejido taldea. Aurretik, Taugres-Baskoniako teknikoan artean egon zen. Hemendik aurrera Sergio Scarioloren laguntzailea izango da Taugres-Baskonian. Jokalari batzuen teknika lantzea eta aurkari berri Scariolori ematea izango ditu zeregin nagusiak. Azken bi denboraldietan Comasen bigarren entrenatzailea izan denak, Josu Larreategik, Taugresen jarraituko du. X

### BOXEOA

#### ■ Tyson menperatu egingo duelakoan dago Holyfieldek

DATORREN larunbatean egingo da Evander Holyfield eta Mike Tysonen arteko borroka. Aipatu bi boxeolariok iazko azaroan izan zuten borrokan errebotan izango da. Orduan pronostikoak apurtu eta Holyfieldek irabazi zuen. «Denek gutxietsi egin ninduten orduan», esan du Holyfieldek borroka hartaz. Garaipen hari esker atzera errespetua irabazi zuela adierazi du boxeolariak. Orain, entrenamenduak ia osatuta, datorren asteko borroka ere irabaziko duelakoan dago. X

## INTXAURRE



### HERRIKO TABERNA

Iñigo eta Mikel Gotzon askatu

Balbino Garitaonandia, 1 - Tel.: 681.80.70  
DURANGO